



Auzok!!

Auzok!!

Zure auzoa, zure istorioak, zure mugikorrarekin egindako bideo-fanzina!!!! Lantegi parte hartzailea da eta helburua Bilboko 5. barrutia genero ikuspegitik aztertzea da.

HELBURUAK	METODOLOGIA	PARTAIDEAK	IRAUPENA
<ul style="list-style-type: none">• Parte-hartzaileek eurek izandako esperientzien bitartez, hurbileko ingurua aztertzea eta baloratzea.• Norberaren mezuak eta edukiak sortzeko, mugikorraren eta IKTBen erabilera kontziente eta arduratsua sustatzea.• Etorkizunean baliagarri izango diren talde-dinamikak bultzatzea.	<ul style="list-style-type: none">• Telefono mugikorra komunikazio-tresna gisa eta edukiak sortzeko baliabide gisa erabiltzea.• Auzoa, genero ikuspegitik aurkeztuko duen bideoa egitea.• “Autu-mautua” eta konfiantzako elkarrizketa harremanetarako metodo gisa.	<ul style="list-style-type: none">• Partaide-kopurua: 10 pertsona.• Adina: 14 – 18.• Bilboko 5. barrutiko auzokideak (emakumeak).• Batez ere emakumeei zuzendua, baina generoaren inguruan eztabaidatzeko gogoia duen edonori irekia.	<ul style="list-style-type: none">• 4 saio.• 2h/saioko.• 2009ko maiatza. Asteroko hitzordua: asteazkena.• Asteazken zehar eta saio baten eta hurrengoaren artean ekintza zehatzak egingo dira.





Bakoitzaren aurkezpena prestatzen.

0. TESTUINGURUA

Lantegi hau Bilboko Udaleko Kultura Sailaren ekimena izan da. Helburua da 5. barrutiko hiritar gazteenei baliabideak eta azpiegiturak eskaintzea San Frantzisko Gizarte Etxean jarduteko aukera izan dezaten, bertako erabiltzaileak gehituz eta egonkortuz.

Bilboko Alde Zaharreko Gazte Guneak koordinatzen duen Umeak Kalean (UK) elkarteak ere proiektuan parte hartu du. Lehenik eta behin, auzoko gazteen beharrak ezagutuz eta ondoren, parte-hartzaileak erakarriz eta lantegia dinamizatzen lagunduz.

1. AUZOUK!!

Lantegia parte hartzailea da. Auzoko emakume gazteez osatutako talde batek Bilboko 5. barrutia aztertzea du helburu, beti ere genero ikuspegitik begiratuta.

Lantegiaren proposamena emakume gazteek auzoari buruz duten ikuspegia eta era berean, auzoarekin duten harremana aztertzea da. Auzoan bizitzeko eta mugitzeko eguneroko kontuak, haien nahiak, erritmoak, adierazpenak, arazoak, lengoaiak, ohiturak... hau guztia izango da bideo-*fanzin* digitala sortzeko erabiliko duten materiala.

2. HELBURUAK

Lantegi honen helburu bereziak honako hauek dira:

- Parte-hartzaileek eurek izandako esperientzien bitartez eta genero ikuspegia landuz, hurbileko ingurua modu kritikoa aztertzea eta baloratzea.
- Mugikorraren eta IKTBen erabilera kontziente eta arduratsua sustatzea.
- Konfiantza-eremua eratzea, fisikoa ez ezik, mentala ere izango dena, parte-hartzaileek euren kezka, ametsak eta iritziak partekatu eta eztabaidatu ditzaten.
- Parte-hartzaileak harremanetan jartzea eta auzokidetasuna bultzatuz, talde-ideia sustatzea.
- Taldeari burujabetasun-tresnak eskaintzea euren garapen askea landu dezaten.
- Etorkizunean baliagarri izango diren talde-dinamikak bultzatzea.

IA 18 egitasmoko helburuak ere biltzen ditu:

- Gazteengan **parte-hartzea, sormena eta hiritar kontzientzia bultzatzea.**
- Gizarte-agenteen (administrazioa, komunikabideak, etab.) eta gazteen arteko **bitartekaritza-bideak ezartzea.**



Zenbait parte-hartzaileen *katetoak*.



Lantegian, materiala biltzen.

- **IKTBak modu konstruktiboan erabiltzea**, modu horizontalean, mundu digitalean jantzia izango den gizartea eraikiz.
- Gaur egungo **gazteen tipologia eta interesak aztertzea** (imaginarioa, nahiak, etab.).

3. EDUKIAK

Lantegian landuko diren gaiak honakoak izango dira: generoa, lurraldetasuna eta identitatea (norberarena eta taldearena).

Baina bestelako gaiak ere landuko ditugu: familia, lagunak, kontsumoa, aisialdia, sexualitatea, drogak, beldurrak, ametsak, ilusioak...partaideek hurbil sentitzen duten edozein gai, hain zuzen ere.

4. METODOLOGIA ETA EKINTZAK

Hona hemen lantegian zehar erabiliko diren ekintza metodologikoak. Denen parte-hartzea bultzatzeko, garrantzitsua da ekintza hauek taldearen erritmora egokitzea:



Karina eta Julia edizio-probetan.

- Auzoko bizitzari buruzko bideoa asmatzea, sortzea eta ekoiztea, beti ere parte-hartzaileen iritzia ardatz hartuta.
- Inguruari buruzko eztabaida parte-hartzaileak sustatzea, datuak jaso eta aztertu ahal izateko.
- Horma-irudi bat sortzea, ondorengo edizioari begira lagungarri izango diren edukiak bertan jartzeko.
- "Autu-mautuak", isilmandatuak eta kontu kontari ibiltzea parte-hartzaileen arteko harremana sendotzeko modu gisa erabiltzea.
- Parte-hartzaile guztien artean auzoaren irudi izango den mapa egitea.
- Mugikorra sormen-tresna gisa eta datuak (irudiak, musika, testuak, etab.) jasotzeko baliabide gisa erabiltzea. Era berean, mugikorra erabilgarri izan daiteke astean zehar egin beharreko lanean partaideak elkarren artean harremanetan egon daitezen.
- E-maila ikusgarriak baino gehiago, lan-prozesua bultzatzea.
- Lantegiak, era berean, alfabetizazio mediatikoa lortzeko helburua du, partaideak IKTBen erabilera kontziente eta arduratsuan murgiltzeko asmoz.
- Talde-lana elkarrekin egindako saioetan.
- Banakako lana zenbaitetan eta antolakuntzaren jarraipena astean zehar.
- Taldea sendotzeko ezagutza eta bizikidetzaren dinamika sustatzea.
- Ekimena ezagutarazteko eta oroitzeko, baliagarri izango den material "fetiitxea" (taldearen irudia jasotzen duten txapak, parte-hartzaileen katetoak, etab.) sortzeko ekintzak.

OHARRA:

Interesgarria da materialaren zabalkundeaz hitz egitea, hau da, bideo-fanzinaz. Lantegian garrantzi handia emango diogu lanaren zabalkundeari eta ezagutarazteari, lana publikoaren aurrean aurkezteko aukera baliatuz.



Parte-hartzaileen irudiak horman.

5. LANTALDEA

Partaide kopurua: 10 lagun.

Adina: 14 - 18 urte.

Sexua: Emakumeek dute lehentasuna (ez baztertzailerak).

Parte-hartzaile guztiak Bilboko 5. barrutiko auzokideak izango dira.

2 dinamizatzaile.

Lantegiaren ardura IA18ko eta Gazte Guneako kide banak izango dute.

6. EGUNAK ETA ORDUTEGIA

2009ko maiatzeko lau sesio (asteazkenetan).

Maiatzak 06.....2h (18:00- 20:00).

Maiatzak 13.....2h (18:00- 20:00).

Maiatzak 20.....2h (18:00- 20:00).

Maiatzak 27.....2h (18:00- 20:00).

OHARRA:

Lan-plangintza oso trinkoa da eta beraz, interesgarria da lan-saio gehiago egiteko aukera aztertzea.

Saioak 2 ordukoak izango dira ofizialki, benetako ordu eta erdi izan dezagun lanerako (garaiz iristea, atsedanak, erritmo lasaia, etab.).



Nazaret bere lehen irudiak egiten.

7. KOKAPENA

San Frantzisko Gizarte Etxeko balio anitzeko gela bat (Mariaren Bihotza Plaza 4, 48003, Bilbo).

Gainera, hainbat ekintza egingo dira auzoan zehar.

Lehenengo saiorako hitzordua UKren egoitzan egingo da, bertan biltzen baitira auzoko gazteak (Gizarte Etxean baino gehiago).

8. MATERIALA

Materiala:

- Mugikorrak (bideo-kamera dutenak).
- Ordenagailu eramangarri bat (gehiago izateko aukera).
- Bideoak editatzeko programak (Movie Maker, Sony Vegas...).
- Irudiak editatzeko programak (Gimp, Photoshop...).
- Bideoen bihurteta egiteko programak (Super Video Converter, MPG, Streamclip...).
- Koloretako inprimagailua.
- Bulego-materiala (errotuladoreak, boliak, arkatzak, guraizeak, itsasgarria, folioak, zinta itsasgarria, gometak, zatar-papera, etab.).
- CDak (grabatzeko aukera dutenak).
- Txapak egiteko makina eta material suntsikorra.



Juliak bideoaren pistak horman marrazten ditu.

- Txartel-irakurgailua.
- Horman jarri eta idazteko paper handiak (arbel modura).
- "Katetoak", kustomizatutako txartel pertsonalak, (iraupena ziurtatzeko kartoi gogorarekin egindakoak).

Azpiegitura:

- Lanerako gela, wi-fia, aulkiak eta mahaiak izango dituen lanerako gela, hain zuzen ere (San Frantzisko Gizarte Etxea).

Parte-hartzaileek ekarri beharreko materiala:

- Adin txikiko kasuan, gurasoek sinatutako baimena.
- Bideo-kamera duen mugikorra (ez da ezinbestekoa, antolakuntzak izango du baten bat).
- Saio bakoitzera astean zehar bildutako materiala ekartzea.

9. EBALUAZIO-ADIERAZLEAK

Lantegia ebaluatzeko parte-hartzaileekin egindako ebaluazioaz gain, honako faktore hauek hartuko ditugu kontuan:

- Parte-hartze aktiboaren maila (bertaratzea, motibazioa...).
- Gazteen gogobetetze-maila (gazteen ebaluazioa).
- Harreman eta enpatia maila.
- Taldearen harreman pertsonalak.
- Taldearen hausnarketa-gaitasuna.
- Sormen-gaitasuna.
- Taldearen espiritu kritiko eta autokritikoaren maila.
- Lantegian egindako gauzen eta emaitzen maila.



Hananek bere herriko ohiturak erakusten dizkigu.

10. DOKUMENTAZIOA

Emakumearen museoaren proiektua da. Nola ikusten dute emakumeek mundua?:

<http://imaginingourselves.imow.org/pb/Welcome.aspx>

Bideo-editoreen zerrenda:

http://en.wikipedia.org/wiki/List_of_video_editing_software

11. LAN-ERANSKINAK

Hurrengo eranskinetan lantegiaren saio bakoitzeko bidai orria topatuko duzu.

- 1eranskina:** 1. SAIOA
- 2eranskina:** 2. SAIOA
- 3eranskina:** 3. SAIOA
- 4eranskina:** 4. SAIOA



Errege Koparen finala dela eta, Athletic fenomenoaz aztertzen.

12. KONTAKTUA

IA 18 irabazi-asmorik gabeko elkarte da. Elkarte honek gizarte zibilaren parte-hartzea eta elkarreragina oinarri duten proiektuak erabiliz, aniztasun kulturala sustatzen du.

IA 18 nerabeei zuzendutako eta ekintza kulturalaren inguruko ekimenak garatzen dituen elkarte da. IKTak (informazio- eta ezagutza-teknologiak) eta sormena zein bitartekaritza kulturala lantzen dituzten estrategia pedagogikoak erabiliz, gazteei ematen die hitza, hiritar aktibo gisa inguruan duten mundua definitzen parte har dezaten:

IA18

Aretxaga, 10
48003 Bilbao
946 053 468

www.casitengo18.com
info@casitengo18.com

Fitxa hau Creative Commons 3.0 España baimenarekin erregistratu da. Aske zara zure taldearekin lantegi hau egiteko, baina gogora ezazu ez dagoela formula magikorik eta hobe dela edukiak zure testuinguruaren eta taldearen beharren arabera moldatzea.



<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/3.0/es/legalcode.es>

Fitxa hau Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntzarekin egin da.





1. SAIOA

HELBURUAK	Konfiantzako eremua sortzea da helburua, fisikoa ez ezik, mentala ere izango den eremua, parte-hartzaileek euren kezka garatzeko, ametsak eta arazoak partekatze ko eta iritziak eztabaidatzeko aukera izan dezaten. Beti ere, askatasunez jokatzeko eta euren kodeak erabiliz.
------------------	--

DENBORA	EKINTZAK	EDUKIAK	MATERIALA
5 min.	UK ezagutzeko ekintza.	Partaide bakoitzaren aurkezpen laburra.	Mugikorra. Katetoak. Errotuladoreak.
10 min.	Gizarte Etxerako bidea.	Auzoa (fisikoa).	
10 min.	Lantegiaren aurkezpena. Irudia.	Lantegiaren nondik norakoak, gaia, lekua, etab.	Bulegoko materiala.
25 min.	Definitu zeure burua (katetoak).	Irudi eta ideia pertsonalak. Identifikazio pertsonalak.	Katetoak. Errotuladoreak. Mugikorrak.
20 min.	Zer daramazu soinean?	Norberaren gauzak eta hauei ematen dieten balioa.	
15 min.	Materiala ordenagailura irauli eta bideoaren aukerei buruz hitz egin.	Nori zuzendua izango da, non emango dute edo nonbaiten emango al dute, bideo-mota, etab.	Ordenagailua.
10 min.	Astean zehar egin beharreko ekintzak jakinarazteko SMSak bidaliko direla esan.	Komunikazio eta harreman moduak.	

Ezagutza-ekintzak----- **05 min.**
Partaide bakoitzak bere izena daraman pegatina jarriko du soinean.

Gizarte Etxerako bidea----- **10 min.**
Umeak Kalean elkarrekin alde zaharrean duen egoitzan gaude eta denak elkarrekin San Frantziskoko Gizarte Etxera abiatuko gara.

Lantegiaren aurkezpena ----- **10 min.**
Lantegiaren nondik norakoak, gaia, etab. azalduko dira. Eta ezagutza lantzeko ekintza laburra egingo dugu, **Irudiak**:
Bikoteka jarrita, 10 minututan eta papera begiratu gabe, gure lagunaren irudia osatu behar dugu, bukatzean, bikotea aldatu eta hurrengo lagunaren irudia egingo dugu, horrela, denen irudia osatu arte.
Irudi guztiak prest ditugunean, bakoitzak bana aukeratuko du eta horman jarriko du, bideo-fanzinean landu nahi duen gaia irudiari gehituz.

Definitu zeure burua ----- **25 min.**
Katetoa egin. Katetoa "kustomizatu daitekeen fitxa pertsonala" da eta norberaren informazioa gordetzen du. Honakoak agertu behar dira fitxan:
Izena.
Adina.
Definitzen zaituen kolorea (ez atsegin duzuna, definitzen zaituena baizik).
Definitzen zaituen aberea.
Definitzen zaituen abestia.



Definitzen zaituen janaria.
Definitzen zaituen esaldia.

Bakoitzak bere katetoa aurkezten du taldearen aurrean eta bitartean, beste partaide batek dena grabatzen du, bideoa egiterakoan baliagarri izan daitezkeelakoan aurkezpen guztiak jasoz.

Zer daramazu soinean?-----**20 min.**

Partaide bakoitzak soinean edo gainean daramazkin gauzak bistaratuko ditu eta mugikorra erabiliz, bideoak edo argazkiak aterako ditu, bere egunerokotasunean ezinbesteko dituen gauzak aukeratuz eta gainontzekoak baztertuz.

Materiala ordenagailura irauli-----**15 min.**

Bideoak egin ondoren, materiala ordenagailura irauliko dugu.

Gogorarazi SMSak bidaliko zaizkiela -----**10 min.**

Astean zehar, eguneroko bizitzako irudiak jaso ditzaten mezuak bidaliko dizkiegu eta hurrengo saioan denek batera komentatuko ditugu.

Azaldu beharko zaie, mezua jasotzen dutenean, nahi dutena egiteko aukera dutela, bideoa grabatu, argazkiak atera, sms-ak bidali, objektu bat gorde, etab. Ondoren, materiala lantegira ekarriko dute erantzun gisa.

Astean zehar bakoitzaren mugikorrera sms bidez bidaliko dizkiegun galderak:

Auzouk! Non zaude?

Auzouk! Zein dendatar joan zara astean zehar? Dendak grabatu, ticketak gorde edo argazkiak atera.

Auzouk! Zein izan da gaur bota dizuten hitzik ederrena?

Auzouk! Interesgarri iruditu zaizun zerbait.

Auzouk! Larunbat gaua, zauden lekuaren bideoa grabatu.

Auzouk! Zein izan da asteko momenturik aspergarriena?

Auzouk! Nor dago zurekin?



2. SAIOA

HELBURUAK	Parte-hartzaileek eurek izandako esperientzien bitartez eta genero ikuspegitik, hurbileko ingurua aztertzea eta baloratzea. Mugikorraren eta IKTBen erabilera kontziente eta arduratsua sustatzea.
------------------	---

DENBORA	EKINTZAK	EDUKIAK	MATERIALA
15 min.	Materiala ordenagailura irauli.	Astean zehar bildutako informazio guztia ordenagailura pasatu.	Txartel-irakurgailua. Ordenagailua. Inprimagailua.
15 min.	Orain arte egindakoa komentatu eta denboraren lerroan kokatu.	Materialen antolakuntza. Ikus-eskema.	Errotuladoreak / margoak. Paperak. Guraizeak / itsasgarria.
45 min.	Norberaren anekdotak edo "autu-mautuak".	Auzoan gertatutako eta partekatu nahi duten anekdota bat grabatu, kontatu edo idatzi.	Mugikorrak. Grabagailua. Papera. Errotuladoreak.
15 min.	Landutako materiala ordenagailura irauli eta denboraren lerroan kokatu.	Bideoaren edukiak. Komunikazio-moduak.	Txartel-irakurgailua. Ordenagailua. Inprimagailua.
10 min.	Zer gehiago falta den, bideoan zer gehiago azaltzea nahi duten pentsatu.		Bideoak eta irudiak editatzeko eta artxiboak bihurtzeko programak.

Materiala ordenagailura irauli ----- **15 min.**

Astean zehar jasotako bideoak eta argazkiak ordenagailura irauliko ditugu taldean komentatzen ditugun bitartean.

Egindakoa komentatu ----- **15 min.**

Egindakoa errepasatu eta komentatu ideiak eta gaiak horman idatziz.

Norberaren anekdotak edo "autu-mautuak" ----- **45 min.**

Bideoan sartu nahi dituzten edukiei buruz hitz egin. Kontatu nahi dutenaren gaineko hausnarketa egingo dugu anekdota edukiz hornitzeko: zer kontatu nahi dute, zergatik kontatu nahi dute, nola egin behar dute, zer grabatu behar dute, etab.

Landutako materiala ordenagailura irauli ----- **15 min.**

Ordenagailura irauliko ditugu saioan zehar egindakoa bideoak eta ideia-mapan jasoko ditugu bideoan landu nahi ditugun gaiak.

Zer falta den pentsatu ----- **10 min.**

Gaiak eta materiala bilduta dugunean, bideoa osatzeko faltan sumatzen ditugun materialak edo baliabideak identifikatuko ditugu.

Astean zehar mugikorrera bidaliko zaizkien galderak:

- *Auzouk!! Norekin gurutzatzen zara institutura joaterakoan?*
- *Auzouk!! Ba al da auzoan atsegina ez duzun zerbait?*
- *Auzouk!! debekatutako 4 leku?*
- *Auzouk!! zure lekuri gustukoena?*
- *Auzouk!! Nora ez zinateke bakarrik joango?*



3. SESIOA

HELBURUAK	Parte-hartzaileak harremanetan jartzea eta auzokidetasuna bultzatuz, talde-ideia sustatzea . Taldeari burujabetasun-tresnak eskaintzea euren garapen askea landu dezaten. Etorkizunean baliagarri izango diren talde-dinamikak bultzatzea .
------------------	--

DENBORA	EKINTZAK	EDUKIAK	MATERIALA
20 min.	Eduki berriak denboraren lerroan jarri eta ordenagailura irauli.	Astean zehar jasotako informazio guztia ordenagailura pasa eta denboraren lerroan jarri.	Txartel-irakurgailua. Ordenagailua. Inprimagailua.
20 min.	Auzoko geure mapa sortu.	<ul style="list-style-type: none"> - Ibilbideak. - Leku gustukoenak. - Leku debekatuak. - Aldatuko zenituzkeen lekuak. - Aldatuko ez zenituzkeen lekuak. 	Errotuladoreak / margoak. Paperak. Guraizeak / itsasgarria. Koloretako zinta. Mugikorrak.
25 min.	Mapan atera diren lekuak grabatu eta argazkiak atera, haiei buruz esandakoa kontatuz.	Mapan markatu, osatzen den bitartean, grabatu eta argazkiak atera.	Grabagailua.
15 min.	Egindakoa ordenagailura irauli eta denboraren lerroan kokatuz joan.	Bideo edizioa.	Txartel-irakurgailua. Ordenagailua. Inprimagailua. Bideoak eta irudiak editatzeko eta artxiboak bihurtzeko programak.
10 min.	Bideoa editatzen hasi.	Bideo edizioa.	

Eduki berriak denboraren lerroan jarri eta ordenagailura irauli ----- **20 min.**
 Material berriak ordenagailura iraultzen diren bitartean, komentatu eta denboraren lerroan kokatuko ditugu. Horrela, bideoa osatze aldera, materialen eta ideien multzoa irudikatzen aukera izango dugu.

Auzoko maparen sorrera ----- **20 min.**
 Orain arte auzoaren inguruan landutako guztia erreparatu eta komentatu.

Bildu gabe ditugun lekuak grabatu eta argazkiak atera ----- **25 min.**
 Kalera irtengo gara denen artean osatutako mapan azaldu bai, baina bildu gabe ditugun lekuak grabatzeko edo argazkiak ateratzeko, hau guztia bideoa sortzeko materiala osatze aldera.

Bildutako materiala ordenagailura irauli ----- **15 min.**
 Auzoan bildutako material guztia ordenagailura irauliko dugu.

Bideoa muntatzen hasi ----- **10 min.**
 Talde osoak egingo du lan bideoaren edizioan.

Astean zehar mugikorrera bidaliko zaizkien galderak:
Materialaren arabera galderak izango dira. Erabil daitezke orain arte erabili ez diren zenbait edo parte-hartzaileei gehien interesatzen zaizkienak.



4. SESIOA

HELBURUAK	Parte-hartzaileak harremanetan jartzea eta auzokidetasuna bultzatuz, talde-ideia sustatzea . Taldeari burujabetasun-tresnak eskaintzea euren garapen askea landu dezaten. Etorkizunean baliagarri izango diren talde-dinamikak bultzatzea .
------------------	--

DENBORA	EKINTZAK	EDUKIAK	MATERIALA
20 min.	Eduki berriak denboraren lerroan kokatu eta ordenagailura irauli.	Astean zehar bildutako informazio berria.	Txartel-irakurgailua. Ordenagailua. Inprimagailua.
10 min.	Ideiak bildu eta behin betiko bideoa nolakoa izango den erabaki.	Bideoaren edukia eta itxura.	Errotuladoreak / margoak. Paperak. Guraizeak / itsasgarria.
50 min.	Bideo-fanzinaren muntaia.	Bideo-edizioa. Bideoan agertuko diren gaiak eta ideiak.	Koloretako zinta. Mugikorrak.
10 min.	Lana jendearen aurrean nola eta noiz aurkeztuko den erabaki. Agurra.	Noiz. Nola. Norentzat. Baliabideak. Taldearen inplikazioa.	Grabagailua. Bideoak eta irudiak editatzeko eta artxiboak bihurtzeko programak.

Eduki berriak ordenagailura irauli -----20 min.

Eduki berriak denboraren lerroan kokatu eta ordenagailura irauli. Astean zehar bildutako informazio guztia ordenagailura pasatu eta denboraren lerroan kokatuko dugu.

Ideiak bildu eta behin betiko bideoa nolakoa izango den erabaki -----10 min.

Bikoteka, bideoan zer eta nola aldatuko luketen pentsatu. Ondoren, iritzi guztiak bateratu eta behin betiko bideoa nola egingo den erabaki.

Bideo-fanzinaren muntaia -----50 min.

Behin betiko bideoaren muntaia. Taldeak azken orduan jasotako materialaren inguruan erabakiak hartuko ditu eta lantegian zehar landutako edizio-eskema eta ideiak jarraituta, bideo-fanzinaren azken edizioa egingo da.

Etorkizunean lana jendaurrera plazaratzeko aukerari buruz erabakiak hartu-----10 min.

Egindako lana jendeari aurkezteko aukerei buruzko erabakiak hartuko dira.
Noiz, nola, norentzat, baliabideak.
Taldearen inplikazioa beharrezkoa izango da hartutako erabakiak aurrera eramateko.

Egindako lana lagunen eta familien aurrean aurkezteko aukera aztertu.
Ekitaldiaren eta bere komunikazioaren izaera, prestakuntza eta antolakuntza:
Horma-irudiaren diseinua, nola aurkeztuko da bideoa, materialak (txapak esaterako), datak, etab.